

KONTROL MOZIOA

AIETEKO ESKOLA PUBLIKOA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2016eko martxoan eskatutako agerraldian eta ekainaren 20an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko maiatzako Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean eskatutako agerraldian, Udal Gobernuak adierazi zigun Aieteko Eskola Publikoaren ekipamendu gabeziak Eusko Jaurlaritzarekin konpartituko zirela, eskolako Zuzendaritza eta Guraso Elkartearekin kontaktua estutuko zela, eta beharrezko informazioa traslatatu eta mugikortasun arazoak aztertuko zirela.

Agerraldian, eskolaren egoera larria eta premiazkoa azaltzen ahalegindu ginen arren, hilabeteren ondoren, ikasturtea amaitu da eta udal barruko koordinazio eskasaren ondorioz, eskola inguruko mugikortasun eta irisgarritasun antolaketa arazoak proposamenik ez da aurkeztu.

Horiek horrela, hauex da EH Bildu taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

.- Udaltzaren hertsatutako eskatzen dio Udal Gobernuari 2016/2017ko ikasturte hasierarako, Aieteko Eskola Publikoaren eraikin berriak beharrezkoa duen irisgarritasun eta mugikortasun antolaketa prest izan dezala eta bere garapenean, mugikortasun eta hezkuntzako teknikariez gain, eskolako Zuzendaritza, Guraso Elkarte eta inguruko bizilagunen iritzia kontuan har dezala.

.- Udaltzaren hertsatutako eskatzen dio Udal Gobernuari, irailaren hasierarako, eskola komunitate osoari eta bizilagunei Aieteko Eskola Publikoaren eraikin berriak sortuko duen antolaketa eta irisgarritasun irizpide berriei buruzko informazioa helarazi diezaien eta eskolako inguruak behar dituen egokitzapenak eginak egon daitezen ordurako.

Donostian, 2016eko ekainaren 24an

Naiara Sampedro Perez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia